

AUZIA DESBLOKEATZEKO NEURRIAK HAR DITZALA EXIJITU DIOTE SINDIKATUEK INTXAURRAGARI

Plantillen kontrako errekurtsua erretiratzeko eskatu du Jaurlaritzak

Jaurlaritzak eta sindikatuek dei egin diote Madrili Justiziako plantillen dekretuari jarritako errekurtsua erretira dezan. Konstituzionalak erabakia hartu arte dekretua indar gabe geratuko da eta funtzionarioek ez dituzte jasoko biltzen dituen soldata igoerak.



Homologazioaren alde iaz Justiziako funtzionarioek egindako mobilizazio bat.

ANDER GILLENIA

Agentziak / Gasteiz

EUSKO JAURLARITZAK eta sindikatuek berriz ere dei egin zioten atzo Margarita Mariscal de Gante Espainiako Justizia ministroari jarrera aldatu eta Euskal Autonomi Erkidegoko Justizia funtzionarioen plantilla dekretuari jarritako errekurtsua erretiratu dezan. Herenegun Auzitegi Konstituzionalak jakinarazi zuen ofizialki errekurtsua onartu egin duela tramiterako eta, hari buruzko erabakia hartu artean, dekretua indarrik gabe geratuko dela.

Erabaki horren ostean sortutako egoera atzoko Gobernu Batzordean aztertu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bileraren ostean, Sabin Intxaurrek, Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak, gogor kritikatu zuen neurri hori, azken aste hauetan behin eta berriz egin duen bezala. Intxaurrekaren arabera, «herritarren zerbitzuan egon behar duen Justizia administrazio modernoaren aurkakoa» da guztiz.

Jaurlaritza «minduta» dago Mariscal de Gantek gai honen guztiaren inguruan izan duen jarrera tematia dela eta. Justizia sailburuak atzo gogoratu zuenez, Gasteizko Gobernuak negoziatziorako borondatea erakutsi duen arren, Madrilek entzungor egin diote behin eta berriz asmo horri. Intxaurrekaren arabera, Mariscal de Gantek «behingoz kontuan hartu beharko luke» Botere Judizialaren Kontseilu

Nagusiak —organigramaren aldeko iritzia eman zuen—, akordioa sinatu zuten sindikatuek eta Jaurlaritzak, «bere konpetentziak erabiliz», erabakitakoa.

Auzia konpontzeko «neurriak» har ditzala eskatu diote sindikatuek Jaurlaritzari. Sindikatuetakordezkariak Justizia Saileko arduradunekin bildu ziren atzo arratsaldean, egoera honek langilerian izango duen eragina aztertu eta aurrera begira nondik nora jo erabakitzeko. Bileran, sindikatu guztiak bat etorri ziren auzia nola edo hala desblokeatu behar dela azpimarratzen. Hori dela eta, jarrera irmoa izan eta behar diren neurriak

hartzeko eskatu zioten Intxaurrekari.

Nolanahi ere, ELAk bere alde tik ere plantillen dekretuaren alde egitea erabaki eta Auzitegi Konstituzionalaren aurrean alde gisa eskuhartuko duela iragarri du.

Sindikatu horrek atzoko bileran Justizia sailburuari eskatu zion «modu beligerante eta argian defenda dezala euskal instituzioek erabakitakoa». ELAren arabera, inpu gnazioa «sekulako adar jotzea» justizia funtzionarioen homologazioa lortzeko lanean aritu diren aurka eta «EAEn hartzan diren akordioekiko Madrilek duen jarrera autoritarioa berriz ere agerian uzten duena».

ELAk bezala CCOOk ere uste du PPren jarrera zentralista eta eskuindarraren erakusle dela suspentsio hori. Ohartarazi zuen sindikatuak «hitzartutako hobe kuntzak galtzea ez duela inondik inora onartuko», eta ildo horretan, Jaurlaritzari eskatu zion «urgentziak» bila deiaola irtenbidea auziari.

UGTrentzat ere lehenbailehen bilatu behar da konponbidea. Hori dela eta, sindikatu eta Jaurlaritzaren artean zein bide jorra litekeen aztertuko duela iragarri zuen atzo.

LABek, azkenik, plantillen dekretua aplika dezala eskatu zion Intxaurrekari, suspentsioa indarrean egon arren.

Parekatze prozesua blokeatuta

Jone Larrañaga / Donostia. Plantillen dekretuaren kontrako errekurtsuak erabat blokeatu du Justizia administrazio langileria EAeko gainontzeko arloetako funtzionarioen egoeraren mailarekin parekatze prozesua. Eusko Jaurlaritzak Justizia arloko transferentzia eskuratu zuenean hasi zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako administrazio horretan diharduten 1.700 funtzionarioen baldintzak parekatzeko prozesu hori

lantzen. Parekatze hori agintzen duen dekretua aurtan bertan onartu zuen Jaurlaritzak, sindikatu nagusiekin akordioa hitzartu ondoren —LAB eta CSIFek ez beste sindikatu guztiek sinatu zuten—.

Akordio horretan, alde batetik, biltzen da justizia arloko langileek zein soldata igoera izango duten, haien baldintza ekonomikoak gainontzeko funtzionarioen bateratzeko —%25etik %45erainokoak mailaketaren arabe-

ra—. Bestetik, Justizia Administrazioako funtzionarioen organigrama zehazten da eta positu bakoitzerako zein eskakizun hartuko diren kontutan adierazten —aintzinasuna, jakintza bereziak eta hizkuntz eskakizunak—.

Hain zuzen ere, plantillen berregokitze horretan Jaurlaritzak bere konpetentziak gainditu egin dituela argudiatuta aurkeztu du errekurtsua Espainiako Justizia ministroak. Haren arabera, eskuratuak di-

tuen eskumenen arabera, Jaurlaritzari ezinezkoa zaio Justizia Administrazioako organigrama egokitu duen bezala egokitzea.

Auzitegi Konstituzionalari dagokio orain Jaurlaritzak horretako eskumenik baduen edo ez erabakitzea. Mariscal de Gantek atzera egiten ez badu behintzat, Konstituzionalak errekurtsu hori onartu edo atzera botatzen duen jakin artean blokatuta segituko du parekatze prozesu horrek. X

Palacios: «Ez da beharrezkoa lizentzia banaketa berriei buruzko azalpenak ematea»

■ Lizentzia banaketak legearen babesean egin direla dio kontseilariak

Europa Press / Iruñea

NAFARROAKO Hirigintza, Garraio eta Komunikazio kontseilari Jose Ignacio Palaciosen iritziz, FMko irratien lizentzia banaketa zerbitzu publiko baten kudeaketa arrunta besterik ez da izan. Hori dela eta, legearen babesean egin dira Nafarroako FMko emisoreen lizentzia banaketa berriak.

Horregatik, Palaciosen arabera, ez da beharrezkoa Nafarroako Parlamentuan lizentzia banaketa horiei buruzko azalpenak ematea.

Adierazpen horiekin erantzun dio kontseilariak PSNko Jose Javier Sanhez Turrillas parlamentarioak eginiko galderari. Parlamentario sozialistak lizentzia banaketa horren zergatien inguruan galdengin zion Nafarroako Gobernuari.

Joan den ekainaren 18an bukatu zuen lizentzia banaketaren kontratazio mahaiak FMko emisoreek aurkezturiko proposamenen azterketa. Uztailaren lehenean jazo zituen azterketa horien ondorioak Garraio eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak, eta, uztailaren selean, aipatu erabakiaren berri izan zuen Nafarroako Gobernuak. Aipatu lizentzia banaketaren artean ez dago azken hamar urteotan euskaraz aritu den Euskalerria irratien lizentziarik. X

Bost lagun arin zauritu dira Nafarroan, autobus batek eta kamioi batek elkar jo dutenean

Europa Press / Iruñea

COROVILLAN, Nafarroan, bost lagun arin zauritu ziren, zihoazen Montañesa autobusak kamioi bat jo zuenean. Ezbeharra atzo goizean jazo zen, Cordovillatik igarotzen den N-240 errepidearen zatiaren.

J.R.V., L.A.G., M.A.P. eta N.T.M Nafarroako Ospitalera eraman zituzten zauriak sendatzera; I.E.I., berriz, Virgen del Camino ospitalean zaindu zuten. Hala ere, aipatu bost lagunak zauri arinak izan zituzten, ondorioz, berahala irten ziren ospitaletik.

Bestalde, Iruñeko Beloso aldan, 20 urteko Jose Antonio T. gaztea harrapatu zuen atzo kotxe batek. Ondorioz, gaztea Iruñeko San Miguel eritxera eraman zuten. X